



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

IRAGARKIA

Espediente zk.: 2020IOPO0005
Azalpena: Administrari lanpostu bat barne sustapen bidez hornitzea

Jakinarazten da Astigarragako Alkateak, 789/2020 Dekretuan, honako hau ebatzi duela:

Tokiko gobernu-batzarrak, 2020ko maiatzaren 26an, administrari lanpostu bat barne-sustapen bidez betetzeko lehiaketa-oposizioaren deialdia eta oinarri arautzaileak onartzea erabaki zuen, eta ekainaren 16ko bilkuran 5.2 eta 9.2 klausulak aldatu ziren.

654/2020 Dekretuaren bidez, onartutako eta baztertutako izangaien behin behineko zerrenda onartu zen, eta 10 egun balioduneko epea eman alegazioak aurkezteko. Zerrenda hori udal iragarki taulan eta web orrian argiratu zen.

Epe horretan ez da erreklamaziorik aurkeztu, beraz, zerrenda behin betikotzat onartua gelditzen da.

Hautaketa-prozesua arautzen duten oinarriekin bat etorritz, aurreko guztia kontuan hartuta, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.h) artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehendabiziko atala.- Jarraian adierazitako pertsonak izendatzea lehiaketa-oposizioko Epaimahai kalifikatzaileko kide:

Epaimahaiburua.-

Kontxi Urdanpilleta Santamaria, eta ordezkoa, Amaia Bengoetxea Arrozpide.

Epaimahikideak.-

David Goñi Jauregi, eta ordezkoa, Iñigo Saralegi Arzallus.

Ana Mugica San Miguel, eta ordezkoa, Izaskun Txintxurreta Ibabe.

Idazkaria:

Arrate Eizagirre Gesalaga, eta ordezkoa, Axun Mugica Erquicia

Bigarren atala.- Hautagaien onartu eta baztetuen behin-behineko zerrenda behin betikotzat jotzea.

Onartuak / admitidas

Sarrera kodea	NAN
2209	***8930**

Ez onartuak / excluidas

Astigarragan, 2020ko irailaren 9an.

Xabier Urdangarin Lasa
alkatea